



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gazteak eta boluntarioritza

EUSKADI 2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Edizioa: 1a, 2025eko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

Egilea:
Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena, diseinua eta maketazioa:
Gazteen Euskal Behatokia



Edukiak

- Helburua eta metodologia
- Hazkunde iraunkorra
- Parte-hartze zabala
- Konpromiso-maila handia
- Jarduera-eremuak
- Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak jarduera-eremuei dagokioenez
- Ondorioak



Helburua eta metodologia

Ikerketaren helburua:

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek boluntario-lanetan duten parte-hartzea, parte-hartze horren hedadura eta eremuak aztertzea.

Metodologia:

2025eko maiatzetik ekainera bitartean bildutako datuak, Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 2.149 gazteri egindako inkesta baten bidez. Inkesta hori osatzeko online galdetegi auto-administratua eta telefono bidezko elkarrizketak uztartu dira.

Datuen azterketa:

Datuak sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera haztatu dira. Ikerketaren diseinuak eta azterketak emaitza esanguratsuak eta fidagarriak bermatzen dituzte, \pm % 2,1eko errore-marjinarekin.

Ikerketaren diseinua, analisia eta emaitzen laburpena:


Gazteen Euskal Behatokia



Hazkunde iraunkorra

2025ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %14,9k esan du gaur egun voluntario-lanak egiten dituela. Ehuneko hori esanguratsua izateaz gain, azken urteetako mailarik altuena erregistratu du. Gainera, hazkunde-joera konstante bat nabari da (2008an %6,4koa zen).

Boluntario-lanak egiten dituzten Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia



Parte-hartze zabala

Esperientziaren panorama osoa aztertzean, gaur egun boluntario gisa dihardutenak eta iraganean boluntario moduan aritu direnak batera zenbatuz gero, ikus dezakegu Euskadiko gazteen % 44,7k (ia erdiek) lagundu dutela beren bizitzako unerren batean boluntariotza-jardueren bidez.

Euskadiko gazteen banaketa, 2025ean boluntariotzan izandako esperientziaren arabera(%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia



Desberdintasunak partaidetzan



Emakume gazteen ehunekoa gizonezko gazteena baino pixka bat handiagoa da, noizbait boluntario gisa jardun izanari dagokionez (% 48,4 eta % 41,3, hurrenez hurren).

Adinak gora egin ahala, boluntario-lanak noizbait egin dituzten gazteen ehunekoak ere gora egiten du; 25-29 urteko pertsonen artean, erdiak baino gehiago (% 54,1).

Boluntario gisa lanik edo jarduerarik egiten duzu?						
(% bertikalak)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Gizona	Emakumea	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai, gaur egun	14,9	14,3	15,7	15,7	14,7	14,3
Orain ez, baina lehen bai	29,8	27,0	32,7	17,6	32,8	39,8
Ez, inoiz ez	53,0	56,2	49,7	63,3	50,2	44,7
Ez duzu erantzun nahi	2,3	2,6	2,0	3,4	2,2	1,1


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2025)

Konpromiso-maila handia

Boluntariorik parte hartzen duten gazteek konpromiso-maila handia erakusten dute:

- Boluntario-lanak egiten dituztenen edo egin izan dituztenen erdiak baino gehiagok gutxienez hileko konpromiso-mailari eutsi dio (% 58,2).
- Talde horren barruan, asteko konpromisoa bereziki nabarmena da: % 37,9k lan horiek gutxienez astean behin egiten ditu edo egin izan ditu, eta boluntariorik aritutako gazteen beste % 20,3k hilean behin gutxienez laguntzen du edo laguntzen zuen.
- Nabarmentzekoa da konpromiso-maila, lanaren maiztasunaren arabera neurtua, antzekoa dela emakume eta gizon gazteen artean.

Euskadiko gazteek boluntariorik egiten duten edo egiten zuten maiztasuna (%)



Oinarria:
Boluntariorik egiten duten/zuten gazteak
Iturria:
Gazteen Euskal Behatokia



Pertsoneri eta haien ongizateari zuzendutako jarduera-eremuak dira ohikoenak

Euskadiko gazteak arlo erabakigarrietan ari dira beren energia bideratzen, eta, horrekin, gizarte-ongizatearekiko interesa erakusten ari dira:

- Gazteen artean boluntarioritza-esparrurik ohikoena haurtzaroari eta gaztaroari dagokiona da, eta boluntarioritza esperientzia duten pertsonen % 48,2k parte hartu du esparru horietan.
- Gazteen artean bigarren ekarpen-eremu zabalduena ere pertsoneri eta komunitatea indartzeari begira dago, pobreziari, garapenerako lankidetzari eta migratzaile edo errefuxiatuei laguntzeari lotutako eremua baita (% 22,7).

Beste jarduera-eremu batzuk


- Hirugarren jarduera-eremuak identitatearekin du zerikusia. Kulturarekin, ondare artistiko edo kulturalarekin eta euskararekin lotutako boluntarioria-lanak dira (% 19,3).
- Horien atzetik, ekologiara eta ingurumenera bideratutako jarduera-eremuak daude (% 15,7), baita nagusiei bideratutakoak (% 13,6) eta desgaitasunen bat duten pertsonen arretara bideratutakoak ere (% 13,2).
- Beste eremu batzuek, hala nola osasunarekin edo mendekotasunekin, larrialdiekin, animalien babesarekin eta abarrekin lotutakoek, boluntario-lanak egiten dituzten edo egin izan dituzten gazteen % 10 baino gutxiago biltzen dituzte.

Bereziki garrantzitsua da boluntariorian esperientzia duten hamar gaztetik lauk borondatezko lanak egin dituztela jarduera-eremu batean baino gehiagotan (% 40,8).





Boluntariotza egiten duten edo egiten zuten 15-29 urteko gazteen jarduera-eremua (%) *



*Ehuneko batuketan 100 baino handiagoa da, pertsona batek eremu batean baino gehiagotan egin baititzake boluntario-lanak.

Oinarria: Boluntariotza egiten duten/zuten gazteak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2025)

Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak, jarduera-eremuei dagokienez

- Emakume gazteek gizonek baino parte-hartze handiagoa dute haurtzaroko eta gaztaroko boluntarioria-lanetan (% 53,4 eta % 42,5, hurrenez hurren, noizbait boluntarioria egin dutenen artean).
- Gizonek, berriz, kulturarekin eta kirolarekin lotutako borondatezko zereginetan emakumeek baino parte hartzearen ehuneko handiagoak dituzte (guztira, boluntario-lanak egiten dituzten edo egin izan dituzten gizonen % 26,0k eta emakumeen % 18,4k bi esparru horietakoren batean egin dituzte).
- Edonola ere, bai emakume gazteek eta bai gizon gazteek boluntarioria gehien egiten duten esparrua haurtzaroari eta gaztaroari lotutakoa da.





Ondorioak

Boluntariotza funtsezko zutabea da gizarte-kohesiorako eta gure komunitatea indartzeko. Konpromisoaren adierazpen bat da, balio partekatuak sendotzen eta gizarte solidarioagoa eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzen duena.

Euskadin, gure gazteriaren ia erdiak parte hartu du boluntario-lanetan, batez ere, pertsonen ongizateari eta gure kultura-nortasuna sustatzeari begirako ekimenetan. Datu honek, bere inplikazioa ez ezik, justizian eta berdintasunean oinarritutako gizarte eredu baten alde egiteko borondate irmoa ere islatzen du.

